





ikastolak



ANDRA MARI IKASTOLA
ETXARRI ARANAZ



Trantsizio gelan parte hartzen duten ikasleek batzuk.

Bada Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan, beratu abaratu eta berezi egiten duen Ikasgela bat. Trantsizio gela, hain zuzen ere.

ZER DA TRANTSIZIO GELA BAT?

Trantsizio Gelak ohiko ikastetxetan kokatzen diren ikasgelak dira eta hauen helburu nagusia HLBP (Hezkuntza Laguntzaren Berariazko Premiak) dituzten ikasle jakin batzuei hezkuntza erantzun egokia eskaintzea da. Horretarako, testuinguru egituratu eta antolatuta bat eskaintzen zaie eta aldi berean, ohiko ikastetxean egoteak dituen onurez eta baliabideak gela arruntetan sartu eta baliabideak eta ikaskideekin harremanak, besteak beste.

Hezkuntza Departamenduak eskaintako baliabideei esker, gure Trantsizio Gela 2014-2015 ikasturtean jarri genuen abian, baina hau lortzea ez zen erraza izan. Familiak eta ikastolako langileek lan handia egin behar izan zuten. Eta, lan honi esker, aurten 4. ikasturtean gaude.

Ikasle guztien benetako inklusioa posible al da?

ANDRA MARI IKASTOLAKO TRANTSIZIO GELAKO IKASLEENGAN BENETAKO INKLUSIOA SUSTATZEN DA

✎ Testua eta argazkia Andra Mari Ikastola

NOLA LORTZEN DA BENETAKO INKLUSIOA? Ikasle bakoitzari bere garapen integrala lortzeko baliabideak eskaintzen saiatzen gara; horregatik, egunerokotasunean aurrera egiteko tresnak (autonomia, hezkuntza emozionala) eta bere mailara egokitutako edukia lantzeaz gain, beren erreferentzia gelako beste ikasle eta irakasleekin lotura eta harremanak bilatzen ditugu. Modu honetan, arlo pertsonal eta

akademikoaz gain, arlo soziala ere lantzen dugu.

– Ikasgela arruntetan sartzea: ikastolako ekintzetan parte hartzeak eta ikasgela arruntetan sartzeak berebiziko garrantzia du. Horregatik, Aitor, Izai, Nahia, Oihan eta Enaitzek, beraien erreferentzia gela dute, eta bertan, gainontzeko ikasleekin proiektu desberdinak burutzen dituzte. Eta ikasturte amaierako bidaieta-

ra ere beren erreferentziako gela-koekin joaten dira, gainontzeko ikasleak bezalaxe gaua pasatu eta egokitzaren zaizkien kanpo ekintzetan parte hartuz.

– Ikastolako ekintza guztietan parte hartzea: ikastolak ikasturtean zehar egiten dituen ekintza guztietan parte hartzen dute, hala nola, Santa Agedan, Olentzeroren festan, inauterietan, liburuaren egunean, korrika

egunean, Karrakan (ikastolako jaialdia)...

– Lagunak programa: Ikastolako orduetatik kanpo Trantsizio Gelako ikasleekin integratzea herrietan jarraitzeko, aurreko ikasturtean, Lagunak programa martxan jarri genuen. Horretarako bere herriko lagunekin asteko bi egunez, ordu eta toki zehatz batean herria elkartzen ziren. Honen jarraipena ikastolatik burutzen da, erreferentzia gelako ikasleekin bilduz eta behar zituzten baliabideak emanez. Emaitza oso positiboak lortu dira: TGko zenbait ikasle herriko festetan lagunekin atorra egin, ihauterietan elkarrekin atera, gazte txokoan lagunekin joan... Aipatu behar da, proiektu hau aurrera eramateko, ikastolako guraso, PT, tutore eta orientatzailearen koordinazio lana ezinbestekoa izan dela.

– Trebetasun sozialak garatzea: modu bisual eta dinamiko batean bizitzan aurki ditzaketen egoera ezberdinak aurkezten zaizkie eta egoera hauetan aproposa den eta ez den jokabidea ondorioztatzen dute.

– Ekimen konkretuen bidez TG gelaren presentzia ikustaraztea: 2014-2015 ikasturtean eginiko "Denok berdinak denok ezberdinak" kanpainaren bitartez, edota Pirritx eta Porrotx bideo lehiaketan parte hartuz...

ETA, ZER DIOTE FAMILIEK? Edozein familiak bezala, beraien seme-alaben garapeneren lekuko diren aldetik, oso pozik daude orain arte egindako bidearekin. Aitorren ama den Rosa-aren iritziz, "ume hauei aukerak ematen badizkiegu, nahiz eta gizarteak ezarritako erritmotan ez izan, bakoitza bere martxan, helburuak lortzen joango dira". Bere ustez, "oso garrantzitsua da ahalik eta baliabide gehien eskaintzea, bai baitakigu %100 aprobetxatzen dituztela, eta hor daude emaitzak". Oihanen ama den Estiren iritziz, antolaketa honen onura garrantzitsua bat, beraien diren ekimenetan dago. Baina Rosak bezala, Estik ere baliabide gehiagoren beharra ikusten du. "Sabai edo limite bat jarri genuke edozein haurren garapenera? Jarri dituzten baliabide guztiak gure ikasle kasuan ere". Izan ere, ikasle bakoitza ahalik eta denbora gehien egotea nahi badugu bere erreferentzia gelan, giza baliabideak handitzea ezinbestekoa da. Hala eta guztiz ere, ikastolan argi daukagu zein den bidea, horregatik, zailtasunak gaindituz, tinko jarraituko dugu benetako inklusioaren alde lan egiten. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zer da trantsizio gela bat?
 2. Nola garatzen dira trebetasun sozialak?
 3. Zein da Aitorren amaren iritzia trantsizio gelaren inguruan?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

- OINEZ BALEA (1): Unax Rodriguez (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Iraide Iturregi (Baztan Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia):
Mattin Mayora (Elizondoko Eskola).



Datu Pertsonalak Babestari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezelaxe, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategia sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.